

**ERABAKIA, 2023ko EKAINAREN 28koa, UPV/EHUko IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEAREN, UPV/EHUko IKERTALDEEI LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA (2022) BEHIN BETIKO EBAZTEN DUENA**

Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu zen, 2022eko azaroaren 2an, UPV/EHUko IKERTALDEEI LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA (2022).

Eskabideak ebaluatzeko izapidea amaitu ondoren, 2023ko maiatzaren 30ean, Ikerketaren arloko errektoreordetzaren web atarian emandako eta ukatutako eskabideen behin behineko ebazpena argitaratu zen, eta 10 egun balioduneko epea eman zen alegazioak aurkezteko.

Epe hori igarota, eta aurkeztutako alegazioetan aipatutako ataletan GIU22/007 eskaera aztertu ondoren, CIDIk erabaki du alegazioen alderdi batzuk kontuan hartzea eta haren puntuazioa 2,3 puntu igotzea, guztira, 2., 3. eta 4. ataletan.

- 2. atala. Zuzendutako doktorego-tesiak: 3 puntutik 4ra igo da, UPV/EHU lankidetzaren programaren esparruan egindako tesiaren nazioarteko izaeragatik.
- 2b atala. Kontratuen kopurua eta iraupena: 3.25etik 3.5era igo da, lortutako kontratu kopuru esanguratsua baloratzean.
- 3. atala (Ezagutzaren finantzaketa eta transferentzia): 10etik 11ra igo da, RICQI indize ekologikoa garatzeak Europamailan dakarren eragina eta aplikagarritasuna modu positiboan ebaluatuta (Europako araudian bertan jasota dago alderdi hori).
- 4. atala. Helburuak eta lan-plana: Helburuen eta lan-planaren puntuazioa 8.95etik 9.0era igotzea

Aurkeztutako alegazioa ebatzi ondoren, CIDIk behin betiko ebazpen-proposamena aurkeztu dio ikerketako errektoreordeari, Ikerketako Errektoreordetzaren webgunean argitara dezan.

Horregatik guztiagatik, honako hau,

### ERABAKI DUT

**Lehenengoa.**- Onartzea emandako eta ukatutako laguntzen zerrenda, erabaki honetako l. eranskinetan jasota dagoena eta lortutako azken puntuazioaren arabera ordenatuta.

**Bigarrena.**- Agintzea erabaki hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu dezaten.

**Hirugarrena.**- Behin betiko erabakiak administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere ez aldi berean erabilia:

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarri gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua administrazio isiltasuna medio ezetsi dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.3 eta 46. artikulua).

Leioan, 2023ko ekainaren 28an,

Inmaculada Arostegui Madariaga  
Ikerketaren arloko Errektoreordea  
Vicerrectora de Investigación

I ERANSKINA

EMANDAKO ETA UKATUTAKO LAGUNTZEN BEHIN-BETIKO EBAZPENEA

KODEA	IN NAN	PUNTUAKETA	EMANDA/UKATUA	EMANDAKO GUZTIRA 2023-2025
GIU22/025	351XXX95E	86	EMANDA	28.165,00
GIU22/016	357XXX45X	83	EMANDA	28.543,70
GIU22/028	159XXX42K	79	EMANDA	66.360,00
GIU22/003	788XXX59J	76,4	EMANDA	36.328,20
GIU22/011	441XXX09S	75,5	EMANDA	28.312,50
GIU22/008	724XXX44Y	75	EMANDA	39.750,00
GIU22/015	443XXX36H	72,5	EMANDA	43.500,00
GIU22/009	162XXX25W	71,5	EMANDA	25.949,50
GIU22/018	162XXX97G	69,5	EMANDA	20.085,50
GIU22/005	152XXX43X	67,5	EMANDA	21.303,00
GIU22/019	357XXX51L	60	EMANDA	7.290,00
GIU22/001	341XXX69K	59	EMANDA	23.305,00
GIU22/002	159XXX51Q	54	EMANDA	21.897,00
GIU22/007	789XXX21W	50	EMANDA	21.604,50
GIU22/030	159XXX50B	40	UKATUA	0,00